


N° .1. ZB // DICIEMBRE 2018 ABENDUA

# BULETINA EL BOLETÍN

LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA  
FAKULTATEA/FACULTAD DE RELACIONES LABORALES Y  
TRABAJO SOCIAL



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

LAN HARREMAN  
ETA GIZARTE LANGINTZA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE RELACIONES LABORALES  
Y TRABAJO SOCIAL



02 Dekanoaren agurra

### Berriak

03 Fakultateko graduazio ekitaldiak

05 Prestakuntza osagarria Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean

10 Lehen Aukera beken programa UPV/EHUn lan arlora igarotzeko

12 Gizarte Langintzak graduondoko bi titulu berri jarri ditu martxan 2018-2019 ikasturtean

14 Nazioartekotzea eta mugikortasuna Fakultatean

### Elkarrizketak

09 *Garazi Otsoa*: Genero ikuspegia GRALetan gehitzeagatik Francisca de Aculodi Saria 2016/2017

11 *Angel Elías*: Negozioen Kudeaketa eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitz berria

16 *Arkaitz Fullaondo*: Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia - 2018ko Barometroa

17 *Gentzane Lorenzo*: Martxan jarri da prestakuntza dualeko ibilbidea Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan

# DEKANOAREN AGURRA

Hainbat hilabete pasa dira gure zentroko azken buletina argitaratu genuenetik, eta, buletin hau irakurtzearekin batera, espero dugu gure Fakultatean gertatzen eta egiten diren zenbait gauza garrantzitsu ezagutzera ematera. Ekimen horien artean, honako hauek daude: diploma banaketa, prestakuntza jardunaldiak eta kurtsuak, graduen hobekuntza eta graduondoko titulazioen eskaintza handitzea. Ikusiko duzunez, gure Fakultatearen ekimenek bere helburua lortzeko bizitasuna duela egiaztatzen dute. Hain zuzen, helburu hori gure gizarteari zerbitzua ematea da, prestakuntzaren eta ezagutza transferentziaren bidez. Hori guztia zentro hau osatzen dugun ekarpenei esker lortu da. Horregatik, buletin honetan parte hartzera animatzen zaitut, hobetzeko iradokizunak bidaliz edota hurrengo argitalpenetarako edukia iradokiz. Azkenik, dekanorde Javier Cerrato eta Amaia Inzari eskertu nahi diet buletin hau lantzen egindako ahalegina eta lan ona.

Angel Elías Ortega

## FAKULTATEKO GRADUAZIO EKITALDIAK

**Arabako eta Leioako Campusetan egindako graduazio ekitaldietan honako hauek jaso dute diploma: 2017-18 ikasturteko Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduko ikasle gradudunek ikasturtean eta 2016-17 eta 2017-18 ikasturteetako Laneko Segurtasun eta Babeseko Masterreko ikasle gradudunek.**

2017-18 ikasturtean Gizarte Langintzako Gradua bukatu zutenen promozioaren graduazio ekitaldia 2018ko ekainaren 29an egin zen, Arabako Campuseko Letren Fakultateko areto nagusian. Arabako Campuseko errektoreorde Ivan Igartuak, gure Fakultateko dekanoa Angel Eliasek, Arabako Gizarte Langintzako Elkargoko zuzendari Gotzon Villañok eta promozio amabitxi Miren Ariño eta Amaia Inzak ikasleak eta gurasoak jaso zituzten. Ekitaldian, 80 ikasleek diploma jaso ostean, Letren Fakultateko hall-ean lunch bat dastatu zen.



2017-2018 ikasturtean Gizarte Langintzako Gradua bukatu zuten ikasleen graduazio ekitaldia

2016-17 eta 2017-18 ikasturteetan Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduoko eta Laneko Segurtasun eta Babeseko Masterreko ikasle gradudunen graduazio ekitaldia azaroaren 5ean izan zen, UPV/EHUko areto nagusian (Leioa). Fakultateko dekanook saioari hasiera eman zion, eta, jarraian, Euskadiko Lan Harreman Batzordeko presidente Tomás Arrieta jaunak *El empleo del futuro: entre las distopías, las utopías y las políticas* konferentzia eman zuen. Diploma banaketaren ostean, Euskadiko Graduatu Sozialen Kontseiluko presidente Susana Jodra andreak eta Lan eta Justiziako sailburu María Jesús Carmen San José andreak hartu zuten hitza. Azkenik, ekitaldiari UPV/EHUko errektore Nekane Balluerka andreak eman zion amaiera, eta, horren ostean, UPV/EHUko unibertsitate abesbatzaren emanaldia egon zen. Ekitaldian 165<sup>4</sup> graduoko ikaslek eta 30 masterreko ikaslek jaso zuten diploma.



Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduoko eta Laneko Segurtasun eta Babeseko Masterreko (2017-18 eta 2018-19) graduazio ekitaldia.

# PRESTAKUNTZA OSAGARRIA LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEAN

**2018an Arabako eta Bizkaiko campusetako fakultateetan hainbat jardunaldi eta hitzaldi eskaini dira**

***Prestakuntza ekintza horien esparru nagusiak honako hauek dira: gizarte ekonomia, emakumearen ahalduntzea lanean, komunitatea eta hiritartasuna, feminismoa, pentsioak eta berdintasuna***

Apirilaren 17an **jardunaldi** baten deialdia egin zen fakultatean eskaintzen diren **graduondoak** **aurkezteko**: Laneko Segurtasun eta Osasuneko Masterra eta Giza Baliabideen eta Enpleguaren Kudeaketako Masterra. Horrez gain, UPV/EHUko beste zentro batzuetan irakasten diren eta aipatutakoekin lotura duten beste master batzuk aurkeztu ziren, hala nola Ekonomia Sozial eta Solidarioko Masterra, Ikasketa Familiarrak eta Generokoak Masterra eta Hegoa institutuko masterrak: Globalizazio eta Garapeneko Masterra eta Garapena eta Elkarlaneko Masterra. Gainera, Fakultateak eskaintzen duen graduondoko prestakuntza handiagoa da pasaden irailetik, Etika Soziosanitarioa Unibertsitateko eta Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntzako Espezialista gehitu zirenetik.

Apirilaren 20an egin zen **Emakumeok mundua eraldatuz. Transformando desde el feminismo** diziplinarteko jardunaldia. Arabako Fakultateko Atalaren Berdintasun Batzordeak antolatu zuen. Jardunaldian hiru gai landu ziren: lehenengoan, *Volar* pelikulan oinarritutako *Transformado nuestras vidas*en, Mujeres que Aman Demasiado elkarteak antolatutako *Libres y organizadas frente a la violencia sexista* hitzaldia eskaini zen; bigarrenean, Akelarre taldearen *Transformado las redes sociales* Perrine Deschetelen, *Ciberfeminismo: autodefensa y empoderamiento en la red* hitzaldia eman zen; eta, hirugarrenean, *Transformando el mundo*, *Tras el 8M: juntas y en movimiento* mahai-ingurua egin zen. Azken horretan FPF-Madrیدهko Begoña San Josek eta FeministAlde-Bizkaiako Ane M<sup>a</sup> Palciosek parte hartu zuten.

Giza Baliabideen eta Enpleguaren Kudeaketako Masterrari dagokionez, Giza Baliabideen Adalan-Consultoría-ren zuzendariak hitzaldi bat eman zuen apirilaren 23an, **RedALDE-Red de activación sociolaboral de y para emprendedoras**. Hitzaldia masterreko ikasleei eman zitzaien, eta baita Fakultateko gainontzeko ikasle, irakasle eta langileei eta publiko orokorrari ere. Urriaren 19an izan ziren **Lan Zuzenbideko eta Gizarte Segurantzako Jardunaldiak**.

Jardunaldi horiek Enpresa Zuzenbidea Sailak antolatu zituen, Campuseko errektoreordetzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin. Bertan, honako hauek parte hartu zuten: Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salako zuzendari Garbiñe Biurrun Mandcisdorrek, Bilboko lan arloko 6. epaitegiko titular Jaime Segales Fidalgok, Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salaren magistratu Juan Carlos Benito Butrónek, Lan Eskubideen eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidean UABko katedradun Eduardo Rojo Torrecillak eta Lan Eskubideen eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidean UJIko katedradun Arantzazu Vicente Palaciok. Horrez gain, moderatzailea UPV/EHUko Lan Eskubideen eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle titular Olga Fotinopoulou Basurko izan zen.

Arlo soziosanitarioan, apirilaren 26an, Arabako Campusean, hitzaldi bat eman zen: **Euskal plan soziosanitarioaren lehentasun estrategikoak**. Hori emateko arduradunak honako hauek izan ziren: Arabako ESIaren koordinatzaile Amaya Saiz de Ormijana, Arabako Foru Aldundiko GOFeko koordinatzaile soziosanitario Esther Sola eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Boni Cantero.

Pentsioei lotutako mobilizazio sozialen testuinguruan, Fakultateak, Asociación PJB-Personas Jubiladas de Bizkaia por unas Pensiones Públicas Dignas elkarteren laguntzarekin, **Nagusiah borrokan Publiko eta Merezitako Erretiro-Pentsioengatik** hitzaldia eman zuen apirilaren 27an. Hizlariak honako hauek izan ziren: Andrea Uña, zeinak mugimendu sindikalei eta pentsioei buruz hitz egin zuen; Luis Alejos, zeinak pentsioen oraingo eta etorkizuneko egoerak azaldu zituen; eta, azkenik, Juanen Elua, zeinak Euskadiko pentsio plan pribatuen eta BGAEn inguruko disertazioa egin zuen. Ildo berean, maiatzaren 9an sozietateen zuzenbideari buruzko IX. jardunaldia egin zen, *Ekonomia soziala: Euskadiko kooperatibak eta kooperatiba-taldeak* izenburupean.

Jardunaldi hori Enpresa Zuzenbideko Sailak eta Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak antolatu zuen, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateko Zuzenbide Ataleko irakasle Izaskun Alzolaren laguntzarekin. Jardunaldi horretan ere honako hauek parte hartu zuten: Aitziber García (Asleus), zeinak kongresua aurkeztu zuen; Verónica Paz Menak (Murgibe), zeinak *Qué ocurre cuando analizamos la realidad social desde la perspectiva de género?* hitzaldia eman zuen; eta, amaitzeko, Iñigo Molinak (Asleus), zeinak *ikuskaritza soziorabala genero ikuspegitik* gaia landu zuen.

Maiatzaren 16an, Fakultateko Atalean, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Gizarte Langintza Unibertsitate Eskolako katedradun emeritu Teresa Zamanilloekin topaketa egin zen. Azken horrek Gizarte Langintzako VI. Estatuko Saria jaso zuen. *Cómo recuperar un Trabajo Social centrado en la comunidad y la ciudadanía* izeneko mintegi honetan, Teresa Zamanillok elkarrizketa bat egin zuen, honako hauek elkartu zituen: Vitoria-Gasteizko Udaleko, Cáritas Arabako eta Sartuko gizarte langileak eta Gizarte Langintzako Graduoko hainbat irakasle.

2018an zehar egin da **Unibertsitate hitzaldien IX. zikloa Araba-Álava espetxean**. Jarduera honako hauek antolatu dute: Gizarte Langintzako Graduoko irakasle Miren Ortubayk, Arabako espetxeko irakasle taldeko koordinatzaileak eta Hiesaren Kontrako Batzordearen laguntza eta hezkuntza taldeek. Horrez gain, Arabako espetxean kartzelatutako herritar guztientzat zuzenduta dago. Guztira, antolatutako sei hitzaldiez gain (*El cine y la historia, Las islas galápagos: infierno y paraíso, La importancia de la salud bucodental, Historia de la ganadería y del queso, Espectáculos en la antigua Roma eta Pruebas de ADN para resolver hoy casos del pasado*), hauek ere prestatu dira: unibertsitate campus barneko ikasleen programatutako irteera eta unibertsitateko ikasle batzuen bisita espetxera. Hitzaldiak 2018an zehar ematen ari diren arren, ikasleen bisita espetxera irailean izan zen, eta campuseko barneko ikasleen programatutako irtenaldia abenduren hasieran izango da. Irtenaldi horretan tailer bat egingo da Gizarte Langintzako ikasleekin.

Irailaren 25-26an eta urriaren 2-3an, Arabako Campusean *Prostitución: ¿otra forma de violencia hacia las mujeres? Una aproximación conceptual para la intervención social desde la perspectiva de género* izenburuko prestakuntza ikastaroa eman zen. Ikastaro horren antolatzailea Gizarterako elkarteak izan zen, eta Emakunderen laguntza jaso zuen. Proiektuaren koordinatzaile Leire Beizteguik prestakuntza zabala eta integrala eskaini zuen prostituzioaren inguruan, generoan eta feminismoan oinarritutako ikuspegi batetik. Bere kontzeptu epistemologikotik abiatuta, prostituzioaren aurreko jarrerak analizatu eta horien inguruan hausnartzeko tarteak sortu zen. Horrela, parte-hartzaileek esku hartze sozialeko hainbat tresna sortzeko aukera izan zuten.

Urriaren 31n eta azaroaren 8,15, 22 eta 29an, **Ikasle Emakumeak Arlo profesionalean Adoretzeko Eskolan (EmPA)** egingo da, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren Giza



Baliabideen eta Enpleguaren Rudeaketako Masterra eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin. Gainera, bertaratutako graduiko ikasleei 2 ECTS kreditu emango zaizkie. Horrez gain, Arabako Campusean, azaroaren 30ean, **Formazio eta Topaketa Profesionaleko XVIII. Jardunaldia egingo da.** Honako gai hau landuko da bertan: «Ebaluazioa gizarte esku hartzean». Hitzaldi nagusia Gizarte Langintzan eta Gizarte Zerbitzuetan Gaztela La Manchako Unibertsitatean katedradun María José Aguilarrek emango du. Jarraian, *Mesa redonda de buenas prácticas: experiencias de cuantificación y cualificación de resultados* mahai-ingurua egingo da.

Abenduaren 13an jardunaldien eta mintegien eskaintzari bukaera emango zaio **Gizarte Langintzako XI. Jardunaldiarekin.** Landuko den gaia honako hau izango da: «Hiritartasuna eta aterpea, Gizarte Langintzaren esku hartzea». Gainera, Jardunaldia Arabako Gizarte Langintzako Eskola Ofizialaren laguntzarekin egingo da. Antropologo eta ikertzaile Andrea Ruiz Balzolak emango du irekiera hitzaldia. Horren ostean, gizarte langile arteko solasaldi profesionala egingo da. Beranduago, lan mahaiak antolatuko dira. Bertan, profesionalek, ikasleek eta irakasleek jardunaldian zehar azaldutakoaren inguruan hausnartuko dute.

# IKUSPEGIA GRAL-ETAN GEHITZEAGATIK FRANCISCA DE ACULODI SARIA 2016/2017

**Gizarte Langintzako Graduoko ikasle Garazi Otsoa Eribekori egindako elkarrizketa, gizarte zientzien alorrean saria irabazteagatik.**

**Genero ikuspegia UPV/EHUko Gradu Amaierako Lanetan barne hartzearen FRANCISCA DE ACULODI Sariaren IV Edizioaren epaimahaiak, Gizarte zientziak eta zientzia juridikoen jakintza alorrerako saria euskaraz, Gizarte Langintzako graduoko Garazi Otsoa Eribeko Uriarte ikaslearentzat izan da, aurkeztutako 37 lanen artean. Lanaren izenburua "Amatasuna eta kartzelak: euskal emakume batzuen esperientzia Espainiako kartzeletan" da eta berorren zuzendaria Zuzenbide Publikoko ataleko irakaslea den Leire Hernández Díaz izan da.**

**Garazi elkarrizketatu dugu bere lanaren mamiaren inguruan gehiago jakiteko.**

**-Zein izan zen zure motibazio nagusia GrALa abierazi zenuenean?**

*Kartzela betidanik oso gertu bizi izan dut eta nahiz eta kanpotik izan, nahiko ondo ezagutzen nuen han bizitzen zen errealitatea. Baina askotan pentsatu izan nuen, orokorrean euskal presoek sufritzen dituzten eskubide murrizketek ere bai han bizi diren umeei pairatzen zituztela. Ideia hori baieztatu ahal izateko, amatasunaren gaia erabakitzea erabaki nuen, buruari buelta asko eman ostean. Lan hau aurrera eramatearen arrazoi edo motibazio nagusia, beraz pertsonala zen. Hau da, betidanik bizi eta ezagutu nuen instituzioaren inguruan neuzkan ideia ezkor eta mingarriak baieztatzea nuen helburu nagusi.*

**- Zeintzuk izan dira lanaren ondorio nagusiak?**

*Lanaren ondorio nagusietariko bat aurrekoan esan dudana izan da, kartzelak ez dituela bere helburuak betetzen, kasu askotan guztiz kontrakoa lortzen duelarik. Baina nire kolektiboan zentratua, euskal preso politikoetan, argi geratu da hauek pairatzen duten legedi bereziak, haien eskubideak murrizten dituela amatasunean eragin zuzenak dutelarik. Orokorrean, amatasun moduluak gizonen moduluak bezalakoak dira, kasu gehienetan ginekologorik edo pediatrarik gabe. Gainera, euskal emakume preso politikoaren seme-alabek murrizketa zuzenak pairatzen dituzte, hauen seme-alabak izate hutsagatik. Beraz, nire ondorio nagusi edo orokorra izan da, umeei haien amekin bizitzeko leku aproposa ez dela, jakinda orokorrean ez dela leku aproposa inor han egoteko ez duelako bere helburu nagusia, birgizarteratzea betetzen. Hau da argi geratu zait kartzela ez dela aproposa inorentzako baina askoz gutxiago amatasuna bizitzeko.*

**-Lana burutzerakoan, zein izan da eduki duzun zailtasunik handiena?**

*Orokorrean lana ondo egituratzea izan da zailtasun gehien sortu dizkidana, baina behin eskema ondo markatua izan nuela, lana aurrera eramatea nahiko erraz egin zitzaidan, beti tutorearen laguntza izan nuelarik eta izugarri eskertzen diot, bera gabe ez nuelako hain lan hona lortuko. Egia da, gero emakumeei elkarrizketak egin ostean neukan informazioa oso zabala zela eta hori hautatzea nahiko gogorra egin zitzaidala, hauek kontatutako bizipenak oso gogorak izan zirelako. Baina behin informazioa hautatu nuela, lanean txertatzea nahiko erraza izan zela esan daiteke, lana egiten izugarri disfrutatu eta ikasi baitnuen.*

**- Eskuhartze proposamenik planteatzen al duzu lanaren bukaeran?**

*Egia da, ez nuela indar askorik jarri eskuhartze proposamenik gauzatzen baina esan daiteke, modu orokorrean izan bazen ere, kartzelen suntsiketa planteatu nuela, hauek ez dutelako bere helburu orokorra betetzen. Baina horretan asko zentratu gabe, nire ondorio zehatzetan proposamen zehatzak egin nituen. Adibidez, emakumeen eta gizonen moduluetan gauzatzen diren tailerrak oso ezberdinak dira, emakumeen tailerrek emakume tradizionalaren ideia indartzen dutelarik. Kasu honetan, nire proposamen xumea bezain garrantzitsua izan zen, tailerrak, berdina izatea eta guztiek tailer aniztasun berdina izatea, eta horietan, euskal preso politiko guztiek parte hartu ahal izatea (orain arte askotan, gehienetan ez bada, ezin dute parte hartu preso politikoak izate hutsagatik).*

**- Etorkizuneko ikerketa zabalagorik edo agian tesirik egitea gustatuko litzaizuke?**

*Egia esan, lana aurkeztu egin nuenean izugarri animatu zidaten aurrerantzean ikerketa zabalago bat egiteko tesiaren bidez, baina momentu honetan, nahiz eta gaia izugarri interesatu, ez naiz prest ikusten tesia garatzeko. Horregatik, momentu honetan ikerketa zabalago bat egiteko indarrik ez ba daukat ere, aurrerantzean nori daki ikerketa zabalago bat egiteko gaitasun edo nahia izango dudana. Horregatik, momentuz dena irekia dago.*

# LEHEN AUKERA BEKEN PROGRAMA UPV/EHU-N LAN ARLORA IGAROTZEKO

## 23 BEKA BANATU DIRA FAKULTATEKO IKASLE GRADUDUNEN ARTEAN

Eusko Jaurlaritzaren eta UPV/EHUren artean sinatutako prestakuntza kontratu programan aurreikusitako Lan arlora igarotzeko 510 beken artean, 2018an 10 izan dira Gizarte Langintzako Graduoko ikasleei bideratutakoak eta 13 Lan Harreman eta Gizarte Baliabide Graduoko ikasleei bideratutakoak.

10

Hartzaile guztiak haien ikasketak bukatu berri dituzten ikasleak dira, espediente akademikoan izan duten batez besteko notaren arabera hautatuak. Programa honek ikasleen gaikuntza profesionala hobetzeko jarduerak aurreikusten ditu, ikasle horiek enpresetan prestatzen. Horrela, gaitasun handiko giza kapitalaren prestakuntza hobetzeaz gain, enpresen beharretara aplikatu eta moldatuko dira. Arrazoi horiengatik, hezkuntzatik lan arlora pasatzeko bekak planteatu dira.

Beka horiek martxan jartzeari esker, hezkuntzatik lan arlora pasatzen 3 hilabeteko esperientzia lortuko da. Gainera, beka jaso duten ikasleek zeharkako prestakuntza osagarriak jasoko dituzte aurretiaz.

Bekan hiru hilabeteko enpresa praktikak jasoko dira: 2018ko urrian, azaroan eta abenduan. Programan parte hartzen duen ikasle orok 1.500 euroko konpentsazio ekonomikoa jasoko du hiru hilabete horiek bukatzean, eta asteko lanaldia gehienez 30 ordukoa izango da (360 ordu hiru hilabetetan). Ikasleek UPV/EHUko irakasle tutore baten eta praktiketako enpresako instruktore baten laguntza izango dute.

Gizarte Langintzako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduetako ikasleak jasoko dituzten entitateek hainbat arlo eta kokapen dituzte: sektore publikokoak (Vitoria-Gasteizko Udala, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Saila edo Durangaldea Mankomunitatea) eta sektore pribatukoak (AFINA, ASAFES, Bizitegi, Conde Aresti, Sartu, AMAPASE, Garnica, EGAZ Txorierri, Albacora, SG2, Bultz-lan, etab.).

# NEGOZIOEN KUDEAKETA ETA LAN HARREMAN ETA GIZA BALIABIDEETAKO GRADU BIKOITZ BERRIA

Hurrengo 2018-2019 ikasturtean, lehenengo aldiz eskainiko da Negozioen Kudeaketa eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitza. Guztira, 360 kreditu banatuko dira 5 ikasturtetan. Klaseak Leioako Giza Baliabide eta Gizarte Langintza Fakultatean eta Bilboko (Elkano) Ekonomia eta Enpresa Fakultatean. Gradu bikoitz honen ezaugarriak hobeto ezagutzeko Fakultateko dekanok Angel Eliasi elkarrizketa egin diogu.

## -Nola sortu zen Negozioen Kudeaketa eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitz honen ideia?

Pedro Gómez irakaslearen ekimena izan zen. Horrez gain, UPV/EHUko Elkanoko Ataleko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean koordinatzailea eta dekanordea ere bada. Ekimena proposatu ostean, bi zentroetako 12 irakasle elkartu eta proposamena elkarrekin lantzen hasi ziren. Azkenean, proposamen hori bi zentroetako batzarretan aho batez onartu zen, eta, beranduago, Estatutuko sortutako Gradu Batzordean eta UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren azkeneko bileran (pasa den 2018ko azaroaren 18koa).

## -Zer ekarpen berri egiten dio ikasleen prestakuntzari?

Bi graduak bost urteren buruan lortu ahal izatea, 360 kredituko ikasketa plan batekin. Gainera, plan horrek ikasleak gaitzen ditu alor ezberdinetako negozioen prozesuak eta operazioak ulertzeko eta beharrezko tresnak aplikatzeko hori guztia kudeatzen; globalizatutako merkatuen testuinguruan errealitate ekonomikoa eta enpresariara eratzten duten markoak, elementuak eta harremanak ulertzeko; bezeroez arduratzeko, aholkuak emateko eta ordezkatzeko, eta Lan Harremanen alor guztietan modu egokian negoziatzeko; jarrera soziala azaltzeko pertsonak eta giza kolektiboek esparru soziolaboralean eta enpleguaren esparruan sufritzen dituzten marjinazio, opresio eta baztertzeko sozial, kulturak eta generozkoen aurrean.

## -Titulazio honek handitzen du ikasleen txertaketa lanean?

Noski. Izan ere, beharrezko tresnak eta ezagutzak irakasten dira zure aholkularitza edo bestelako enpresa proiektu bat martxan jartzeko. Gainera, aukera dute administrazio publikoan tamaina guztietako enpresetan lan egiteko, honako hauek egiten: enpresen eta giza baliabideen gestio integrala, nazio arteko marketinaren gestioa, finantza-zuzendaritza, kontu-ikuskaritza eta aholkularitza laboral eta sindikala gizarte graduatu gisa, ordezkari judiziala, administrazio publikoaren gestioa, lan-arriskuen prebentzioa, unibertsitateko edo bigarren hezkuntzako irakaskuntza, etab.

## -Gradu bikoitz hau egiteko, ikasleek ezaugarri bereziak izan behar dituzte edo edozein ikasle du aukera karrera egiteko?

Garrantzitsuena motibazioa da, eta, kasu honetan, ezinbestekoa da pertsona analitikoa, antolatua eta planifikatua izatea; ekonomiaren, enpresen eta ildo guztietako lan kontuen funtzionamenduan interesa edukitzea eta gure errealitate sozial, kultural eta politikoa sentikorra eta konprometitua izatea.

## -Zenbat plaza eskainiko dira urtero? Zeintzuk izango dira hautaketa irizpideak?

Guztira 30 plaza eskainiko dira, gradu bakoitzak bere numerus claususetan dituenetik kenduko direnak. Matrikulatzeko irizpidea titulazio guztietako irizpide orokorra da, hau da, nota altuenetik baxuenera ordenatuta ikasle bakoitzaren espediente akademikoaren arabera.

## -Non irakatsiko da, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean edo Lan Harreman eta Gizarte Langintzako Fakultatean?

Gradu bikoitz hau bi titulaziok osatzen dute, eta, nahiz eta Lan Harreman eta Gizarte Langintzako Fakultatera atxikita egon, ikasle bakoitzak dagokion fakultatean egingo da gradua. Horrenbestez, Negozioen Kudeaketako Gradua Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Elkanoko Atalean egingo da, Bilbon, eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua gure Fakultateko egoitzan, Leioan. Kontuan hartu behar da ikasleak 2 egun egongo direla fakultate batean eta 3 bestean. Gainera, ikasgaiak gradu bakoitzeko gainontzeko ikasleekin jasoko dituzte, ordutegi eta gela berean, hautatutako hizkuntzaren arabera.

## -Zer ekarpen egiten dio gradu bikoitz honek euskal gizarteari?

Badakigu enplegu gutxi egotea eta lanaren kalitate baxua gaur egungo gizartearen ardurak nagusiak direla. Aldi berean, enpresa gehienak txikiak edo ertainak dira, eta aholkularitza eta kudeaketa egokiak behar dituzte. Horregatik, gradu bikoitz horrek pertsonen gizarte beharrezkoekin konpromiso handia erakusten duten profesionalak arlo juridikoan eta ekonomikoan prestatzeko beharri erantzuten dio.

## GIZARTE LANGINTZAK GRADUONDOKO BI TITULU BERRI JARRI DITU MARTXAN 2018-19 IKASTURTEAN

2018/2019 ikasturteak berrikuntzak ekarri ditu Fakultateko Gizarte Langintzako Atalera graduondoko irakaskuntza eskaintza berriarekin. Zehazki, Unibertsitateko Espezialista motako bi Berezko Titulu jarri dira martxan: Etika Soziosanitarioa eta Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntza. Aurrerapauso kualitatiboa izan da bi graduondoko horien lehen edizioa titulazio honetarako; izan ere, orain arte ez da egon UPV/EHUn Gizarte Langintzaren arloko graduondokoen eskaintzarik. Gainera, graduondoko biek dute Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa.

12

Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntza graduondokoan urriaren 19an hasi ziren klasean. 15 ikasle daude matrikulatuta, eta Gizarte Langintzako gradudunak edo lanean ari diren profesionalak dira. Ikasturtearen inauguraziora Fakultateko Dekano Ángel Elías joan zen Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatearen ordezkari gisa, eta Graduondoko Batzorde Akademikoaren ordezkari gisa, berriz, Arkaitz Fullaondo, Ainhoa Berasaluze eta Amaia Inza. Lankidetzako erakundearen ordezkari gisa Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen zuzendari Emilio Sola, SiiS-eko zuzendari Joseba Zalakain eta Arabako Gizarte Langintzaren Elkargoko Gotzon Miñano bertaratu ziren.



Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntzako Graduondokoaren aurkezpena

Bestalde, Etika Soziosanitarioak joan den irailaren 19an egin zuen bere ikasturte akademikoaren hasiera ekitaldia. Graduondoko horretan 23 pertsona matrikulatu dira, eta gehienak eremu soziosanitarioan eta etikaren eremuan lanean dabiltzan profesionalak dira. Ikasturtearen inaugurazioan Arabako Campuseko errektoreorde Iván Igartuak ordezkatu zuen UPV/EHU, Ataleko koordinatzaile Amaia Inzak ordezkatu zuen Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea, eta, azkenik, Maria del Mar Lledok eta Boni Canterok ordezkatu zuten Graduondoko Batzorde Akademikoa. Lankidetzak-erakundeen ordezkari gisa Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen zuzendari Emilio Sola, Eusko Jaurlaritzako koordinatzaile soziosanitario Lourdes Zurbanobeaskotxea eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebakuazio Sanitarioko zuzendari Nekane Murga bertaratu ziren.

13



Etika Soziosanitarioan Espezialista Graduondokoaren aurkezpena

# NAZIOARTEKOTZEA ETA MUGIKORTASUNA FAKULTATEAN

**Nazioartekotzea izango da titulazioak kategorietan sailkatzeko irizpideetako bat, eta ikasleek nazioarteko sakontze aipamena lortzeko aukera izango dute behin ikasketak bukatuta.**

2018-2019 ikasturtetik aurrera UPV/EHUK graduako eta masterreko titulazioak sailkatzeko erabiliko dituen irizpideetako bat izango da nazioartekotzea, irakaskuntza-ikaskuntza metodologia berrikuntzak erabiltzearekin eta eskainitako prestakuntza praktikoaren kreditu kopuruarekin batera, EHAako 2018 uztailaren 27ko Aginduan jasotakoari jarraikiz.

Gainera, 2017-2018 ikasturtetik dute ikasle gradudunek beren nazioarteko profila Tituluaren Gehigarri Europarraren (TGE) bitartez aitortua izateko aukera, eta horrez gain, nazioarteko sakontze aipamena ere jaso dezakete beren graduako eta masterreko titulazioetan, baldin eta honako hiru baldintza hauek betetzen badituzte: gutxienez hiru hilabeteko egonaldia egin izana atzerrian Graduako edo masterreko ikasketak edo praktikak egiteko UPV/EHUren hitzarmen edo truke programaren baten bitartez, besteak beste, Erasmus +, Latinoamerika eta beste norakoak programak; C1 edo maila altuagoa lortu izana Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuan (HEEMB) aitortutako diploma edo ziurtagirien bitartez; eta gutxienez 15 kreditu egin izana atzerriko hizkuntzetan UPV/EHUko gradu edo masterretakoren batean edo, halakorik egiteko aukerarik ez balego, gutxienez 3 kreditu egin izana kultura arteko gaitasunei buruz UPV/EHUK eskainiko duen *Intercultural Competence* ikasturtea eginez.

Nazioarteko mugikortasunari dagokionez, Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea abiapuntu onetik hasi da; izan ere, guztira 22 hitzarmen dauzka sinatuta nazioarteko mugikortasunaren arloan, 16 Europako unibertsitate ikasleen trukeen Erasmus + programan eta beste 6 Latinoamerikako unibertsitate programaren baitan. Guztira, ikasleen truketarako 54 plaza eskaintzen dira.

Erasmus + programaren baitan 7 hitzarmen daude indarrean Gizarte Langintzako Gradurako: *Hochschule für Angewandte Wissenschaften Muenchen* (Alemania), *Laurea University of Applied Sciences* (Finlandia), *Institut Regional du Travail Social – Aquitaine* (Frantzia), *Università degli Studi di Parma* eta *Università degli Studi di Trento* (Italia), *Instituto Superior Miguel Torga* (Portugal) eta *Ersta Sköndal University College* (Suedia). Guztira, 15 plaza daude ikasleentzat eskuragarri.

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan beste hainbeste Erasmus + hitzarmen daude indarrean, hau da, zazpi: Italian, *Università degli Studi di Bologna*, *Università degli Studi di Sassari*, *Università degli Studi di Bari* y *Università degli Studi di Urbino Carlo Bo*; Frantzia, *Université des Sciences et Technologies de Lille* eta *Université Rennes 2*; Portugalen *Instituto Politécnico de Setúbal* eta Errumanian *Universitatea Lucian Blaga*. Guztira, 20 plaza eskaintzen zaizkie ikasleei.

Masterreko ikasleen mugikortasunari dagokionez, aldiz, hitzarmen bat dago Bordeleko Unibertsitatearekin Laneko Segurtasun eta Osasuneko Masterrera. Horrez gain, *Università degli Studi di Bologna* eta *Universitatea Lucian Blaga* unibertsitateekin sinatutako hitzarmenek elkartrukeko plaza bana eskaintzen dute Laneko Segurtasun eta Osasuneko Masterrera, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradurako eskaintzen dituztenez gain. Masterreko ikasleentzat 6 plaza eskaintzen dira guztira Erasmus elkartrukeak egiteko.

Latinoamerikako unibertsitate arteko programari dagozkionez, 6 hitzarmen daude indarrean. Horietatik 4 Gizarte Langintzako Graduari dagozkie, eta honako unibertsitate hauekin sinatu dira: Mexikoko Institutu Politekniko Nazionala, Guadalajarako unibertsitatea, Unibertsitate Nazional Autonomoa (Mexiko) eta Pazifikoko Unibertsitatea (Txile). Guztira 9 plaza daude horietan. Gainera, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradurako 2 hitzarmen daude sinatuta Uruguayko Unibertsitate Katolikoarekin eta Monterreyko Institutu Politeknikoarekin (Mexiko). 4 plaza eskaintzen dira guztira horietan.

Estatuko unibertsitate arteko SICUE truke programari dagokionez, 26 hitzarmen sinatu dira Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradurako eta 13 Gizarte Langintzako Gradurako.

2018-2019 ikasturtean Fakultateko 23 ikasle daude nazioarteko mugikortasunen bat egiten Erasmus+ eta Latinoamerika programekin. Gainera, Europako eta Latinoamerikako unibertsitateetatik etorritako 8 ikasle jaso ditugu gure Fakultatean. SICUE programari dagokionez, 14 ikasle ari dira mugikortasun programa horretan parte hartzen, eta beste unibertsitate batzuetatik datozen 4 ikasle hartu ditugu Fakultatean.





# IKUSPEGI- IMMIGRAZIOAREN EUSKAL BEHATOKIA - 2018KO BAROMETROA

## Fakultateko Akademia Antolakuntzako dekanorde eta Ikuspegi ikerketa taldeko kide Arkaitz Fullaondo elkarrizketatu dugu

Joan den urrian Ikuspegi- Immigrazioaren Euskal Behatokiaren jatorri atzerritarra duten herritarren inguruko pertzepzioei eta jarrerari buruzko 2018ko barometroa argitaratu zen. Dokumentuak hamar gai nagusi izan zituen ardatz: immigranteen presentziaren pertzepzioa, euskal gizartean hautemandako efektuak, etxebizitza eta zerbitzuetarako irisgarritasun eskubidea, elkarbizitza ereduak eta harremanetarako espazioak, jarraibide kulturalak mantentzea, adeitasun maila, estereotipoak, immigrazio politika, gizarte laguntzak eta tolerantzia indizea. 2018ko Barometroan lortutako emaitzak azken hiru urteetan lortutako enbeldo beretik doaz, eta berretsi egiten dute 2015ean hasi zen krisialdi osteko agertokia. Honako esteka honetan ikus daiteke txosten osoa: [www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2018/bar\\_CAE\\_2018\\_EUS\\_web.pdf](http://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2018/bar_CAE_2018_EUS_web.pdf).

16

**-Nolakoa da EAEko immigranteen proportzioa estatukoarekin alderatuta? Eta Europako gainontzeko herrialdeekin alderatuta?**

*2018ko erroldatze datuei erreparatzen baldin badiegu, ikus dezakegu EAEko biztanleriaren % 9,4 jatorri atzerrikoa dela; hau da, beren nazionaltasuna edozein dela ere, Espainiako estatutik kanpo jaio zela. Espainiako estatuan proportzio hori % 13,6koa da; beraz, azpitik gaude, zehazki, 4,2 puntu beherago. Autonomia Erkidegoen sailkapenari erreparatzen badigu, 11. postuan gaude, Balear Uharteek (% 22,2), Madrilek (% 18,5) eta Kataluniak (% 18,1) dituzten tasetatik urrun. EBren kasuan, EAErekiko ezberdintasuna ez da hain handia; izan ere, atzerritarren proportzioa % 11,2koa da EBan, herrialdeen artean ezberdintasun nabarmenak dauden arren, noski.*

**-Egokia al da Euskadiko immigranteen integrazioa kulturari, gizarteratzeari eta lanari dagokionez? Edo arazo eta zailtasunak al ditu?**

*Euskadin dugun immigrazioa ekonomikoa da; hau da, lan egitera eta bizitza proiektu bat garatzera datozen pertsonak dira. Zaila da migrazio prozesu osoa bizitzea, nonbaitera iristea eta harrerako gizartean integratzea. Lan arloari dagokionez, datuek erakusten dute biztanle atzerritarren langabezia tasa EAEkoa baino askoz altuagoa dela, eta horrek agerian uzten du zailtasun handiagoak dituztela lana aurkitzeko. Dena den, jatorriaren arabera ezberdintasunak ere badaude. Errazago aurkitzen da lana Latinoamerikako taldearen baitan, baina lanpostuak oso ez-egonkorak dira (gehien bat etxeko lanetan dabilzan emakumeak); aldiz, Afrikatik datozen biztanleek zailtasun handiak dauzkate lana topatzeko. Gehien kezkatzen nauena azken talde horren gizarteratzea da.*

**-2018ko urrian argitaratutako Ikuspegiaren azken azterlanean agerian geratzen da euskal gizarteak tolerantzia maila altua duela immigranteekin. Nola azal daiteke hori, zure ustez?**

*Nik esango nuke, orokorrean, gizarte justiziaren aldeko apustua egiten duen eta gizarte kohesioan sinesten duen gizarte korrante oso garrantzitsu bat dagoela euskal gizartean. Testuinguru horretan, atzerritarren integrazioarekiko sentsibilizazio handia dago, eta horrek berarekin dakar tolerantzia maila hori. Dena den, ikus daiteke euskaldunok integrazioa asimilazionismoaren parte gisa ulertzen dugula; hau da, immigranteak "gurera" integratzea nahi dugu, baina ez hainbeste gu beren jarraibide kulturaletara integratzea.*

# MARTXAN JARRI DA PRESTAKUNTZA DUALEKO IBILBIDEA LAN HARREMANAK ETA GIZA BALIABIDEAK GRADUAN

**2018-2019 ikasturtean eman zaio hasiera Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduoko ibilbide berriari. Hari esker, posible izango da enpresan eta unibertsitatean lortutako gaitasunak uztartzea.**

Prestakuntza dualak hobekuntza nabarmena dakar *prestakuntza sistema tradizionalaren* aldean; hala, hobetu egiten du ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua enpresan banan-banakako laguntza jasotzearen eta unibertsitateko irakasle tutorearen jarraipenaren bitartez. Prestakuntza dualaren ereduak dituen abantailen artean azpimarratzeko modukoa da enpresek hautatuko dituztela jaso beharreko prestakuntza alternantzia erregimenean egingo duten ikasleak, eta, horri esker, posible izango da enpresen premietara moldatzea. Gainera, ikasleak garapenarekiko eta gizarte hazkunde iraunkorrekiko konpromisoa duen enpresa sarean sartzeko euskal gizarteari ezagutzak eta gauzak ondo egiteko jakintza transmititzen lagunduko du.

Ibilbide duala laugarren moduluan (edo mailan) zehar egiten da: hautazko irakasgai guztiak ordeztu ditu, eta bertan titulazioko gaitasun espezifikokoak eta zeharkakoak garatzen dira. Ibilbide Duala egiten duten ikasleek enpresa batean egingo dute egonaldia (48 kreditu), eta egonaldi hori 2 fasetan egingo da banatuta. Gainera, ikasleak enpresan egin duen egonaldi horri lotutako GRAL bat egin eta aurkeztu beharko du (6 kreditu). Horrenbestez, Ibilbide Duala egitean, ikasleak 1.200 ordu emango ditu enpresa egonaldian eta 150 ordu dedikatuko dizkio GRALari.

Prestakuntza Dualeko ibilbidea egiten ari den ikasleetako bati egin diogu elkarrizketa, Gentzane Lorenzori, hain zuzen.

## **- Zer onura ekarri dizu Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduoko prestakuntza dualeko programa horretan sartzeko?**

*Zalantzarik gabe, lan merkatura berriro sartzeko eta karreran zehar neureganatu ditudan trebeziak enpresa batean garatzeko aukera izan da. Gainera, lan egiteko aukera bat izateaz gain, hazi eta betidanik nire pasio izan diren lan harremanetara dedikatzeak aukera bat ere bada. Hori gutxi balitz bezala, besteekin harremanetan egoteko modu berrietara egokitu behar izan dut, erantzukizun berriak hartu, lan ordutegi eta ohitura berriak hartu... baina orokorrean dena oso positiboa izaten ari da orain arte.*

## **- Oso ezberdina al dira enpresa bateko lan giroa eta unibertsitateko giroa?**

*Nire kasua ezberdina da; izan ere, nire kideek lehen aldiz izan dute harremana lan munduarekin. Ni lanean ibili nintzen unibertsitatean sartu aurretik, baina, hala ere, bizi izan dudana aldaketa nahiko garrantzitsua izan da. Unibertsitatean zu zeu antolatzen zara, erritmoak ezberdinak dira, eta ez duzu egiten ari zarena ikuskatzen duen nagusirik. Enpresa batean sartzeko lan egiteko modu berrietara egokitzea eta lankideekin erlazionatzea da, norberak bereganatutako ezagutzak heldu eta praktikan jartzeaz haratago; enpresan harremanak zurrunagoak dira, eta prozedurak ezarrita daude.*

*Ni aholkularitza bulego batean ari naiz nire prestakuntza duala egiten, eta lan giroari dagokionez esan daiteke adeitsua baina oso profesionala dela. Langile gehienek urte askoko esperientzia dute, eta horrek graduari zehar neureganatu ezin izan ditudan gaitasun batzuk neureganatzeko aukera eman dit, besteak beste, bezeroarekiko edo hainbat erakundearekiko harremana ezagutzeko.*

## **- Uste duzu egiten ari zaren lanak graduoko gaitasunak zeureganatzen laguntzen dizula edo ez dela beti horrela gertatzen eta gaitasun horiekin zerikusirik ez duten beste ataza batzuk egiten dituzula?**

*Uste dut zori onetako naizela. Bi hilabete daramatzat enpresan eta graduari ikasitako gaitasunak praktikan jartzeko aukera eman didaten proiektuak egin ditut. Esaterako, laneko zuzenbideari eta gizarte segurantzari dagokionez, aukera izan dut erretiroak*

eta ezgaitasunak kalkulatzeko, eta are langile baten kontratazioarekin erlazionatutako ekintza guztiak gauzatzeko ere. Orain arte egin ditudan ataza guztiak egon dira erlazionatuta graduarekin.

Egia da prestakuntza duala egiteko hautatutako tokiaren arabera, gaitasun batzuk edo beste batzuk garatzen direla gehiago. Nire kasuan, lan arloko aholkularitza bulego batean lanean nabilenez, horrek lan zuzenbideari eta bezeroarekiko harreman zuzenari lotutako gaitasunak garatzea dakar berarekin. Imajinatzen dut hainbat enpresetako giza baliabide sailetan dauden kideek giza baliabideekin zerikusi handiagoa duten gaiak garatuko dituztela. Horregatik, prestakuntza dualarekin hasi aurretik, ikasleak gerora bere ibilbide profesionala garatzeari begira gehien interesatzen zaizkion enpresetan egiten dituzten elkarrizketak. Azken finean, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua diziplina anitzeko gradu bat da, profesionalki hainbat eremutan garatu eta gustukoena hautatzeko aukera ematen duena.

### **- Nolako da enpresa bateko ikaskuntza testuinguruan gutzitx murgiltzea unibertsitateko prestakuntza jasotzen hiru urte eman ostean?**

Hasieran nahiko nekagarria da, baina oso atsegingarria da, eta inongo zalantzarik gabe esango nuke merezi duela. Mahai gainean jarri behar dira graduan zehar zeureganatutako ezagutza guztiak; denak buruan dituzu, baina ez dakizu non. Behin ezagutzen duzuna antolatuta, ezagutzak gehitzen eta gaitasun berriak zeureganatzen jarraitzea da hurrengoa.

Unibertsitatean klaseak ematen dizkigute eta jakintzak zeureganatzen ditugu, baina, batez ere, erantzunak non bilatu behar ditugun ikasten dugu. Behin enpresan zaudela, askotan zuk zeuk argitu behar dituzu zalantzak; praktikan jarri behar dira non bilatu behar den jakiteko gaitasuna eta norberarekiko eta ikasitakoarekiko konfiantza. Hala ere, beti dago gidatuko zaituen enpresako tutore bat.

### **- Mota horretako prestakuntza dualak norberak gaitasun praktikoak bereganatzea ahalbidetzen du; ba al dago, zure iritziz, gaitasun teorikoak behar baino gutxiago lantzeko arriskurik?**

Ez dut uste, unibertsitatean ere tutore bat esleitu digute, eta astero bidaltzen diogu enpresan egin ditugun atazei buruzko informazioa. Gainera, bi astero behin biltzen gara berarekin, eta tutorea da zeureganatu gabeko gaitasunak ez geratzeko saiakerak egiten dituenak. Nire kasuan, GRALa generoaren ikuspegitik egongo dudanez, nire tutoreak berdintasunerako planen klaseetara joateko gomendatu zidan, eta, beraz, entzule gisa ari naiz klase horietara joaten. Hori gutxi balitz bezala, nire prestakuntzarako erabilgarria zaidan informazio osagarria ere bidaltzen dit.

### **- Enpresan zure ikaskuntza prozesua gidatzen duen instruktore bat duzu, betiere unibertsitateko tutore baten laguntzarekin. Bien arteko koordinazioa egokia dela uste duzu?**

Aldian behingo bilerak egiten dituzte nire prestakuntza koordinatzeko. Ez dakit zein den bilera horien edukia, baina nire tutorea oso sartutako dago enpresan jasotzen ari naizen prestakuntzan, generoarekin erlazionatutako gaien inguruan dokumentatzen ibiltzeko eta nire Gradu Amaierarako Lanerako (GRAL) gai bat proposatzeak argi uzten duen bezala.

### **- Zeintzuk dira alde onak eta alde txarrak? Beste norbaiti gomendatuko al zenioke prestakuntza mota hau?**

Nire ustez, gradua amaitzeko modurik onena prestakuntza mota honen bitartez egitea da. Momentuz ikusten diodan alde txar bakarra da mundu guztiak ez daukala prestakuntza mota hau egiteko aukerarik, enpresaren aurretiko hautaketa baten bitartez egiten delako. Fakultateak ikasle guztiak prestakuntza hau egiteko enpresa kopuru nahikoa lortuko balu, graduak salto kualitatibo handia emango luke.

Dena den, denei gomendatzen diet ahaleginak egiten jarraitzea; izan ere, ez da hain zaila mota honetako prestakuntzan sartzea eta aukera profesional aparta da, ez bakarrik ezagutzak zeureganatzeko, baizik eta gure interesak partekatzen dituzten lan munduko profesionalarekin kontaktuak ezartzeko ere.

## DUAL IBILBIDEA





**Lan Harreman eta Gizarte Langintza Facultatea. Araba Campusa.**



**Lan harreman eta Gizarte Langintza Facultatea. Leioa Campusa.**